



EUNTEZKO EUNTEZKO SOZIOGATEAK SOZIOGATEAK

Gure aplikazioa optimizatzeko eta zerbitzu ezin hobea emateko, beste enpresa batzuekin akordioak sinatuko ditugu.

Lehenik eta behin, “Emakunde” elkartearekin lotuko gara.
(<https://www.emakunde.euskadi.eus/u72-home/eu/>)



“Emakunde, Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa da, berdintasunerako politikak diseinatu, bultzatu, haien inguruan aholkatu, koordinatu eta ebaluatzen dituena, bai eta gizartea sentsibilizatzen duena ere, EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra lortzeko xedez.”

Behin “Emakundearen” xedea azalduta, gure proiektuan izango duen funtzioa hauxe da: dakigunez, “Emakunde”-k emakumeengan duen ondorioa kontuan hartuz, gure proiektuari ikusgarritasuna emango dio eta horretaz aparte, gure proiektua aurrera eramateko diru-sarrerarik nagusia crowdfunding izeneko finantzazioan, kamisetak zein ohialezko poltsak emango dizkigute.

Beste aldetik, “Andrak Leioa” izeneko elkartearekin akordio bat sinatuko dugu. Elkarteak emakumearen inguruko ekintzak antolatzen ditu eta burutuko dituzten ekintzetan, gure aplikazioa promozionatuko dute eta horren truke guk, gure sare sozialetan eta aplikazioan baita ere publizitatea emango diegu.

Ondorio moduan, emakumearen inguruko ekintzak sustatzea bizi garen gizarte honetan berebiziko garrantzia duelakoan gaude eta horrek emakumeen eskubideak aldarrikatzeko baliagarriak direla uste dugu.

